

2002-09-12
kioskoa**Ekaitz Agirre****Mundua «aldatu»
zuen egunaren
urteurrena?**

Iritsi da irailaren 11, askoren esanetan mundua aldatu zuen egunaren lehenengo urteurrena. Baina aldatu al da benetan mundua? Hamabi hilabeteren ondoren, «askatasuna mehatxatuagoa eta babes eskasagoarekin» dagoela zioen **El Mundo**-k, baina egunkari horretako kolaboratzaile Antonio Galak Ameriketako Estatu Batuek gertatuz irakasgairik ez dutela atera nabarmendu zuen, alegia, beraien jarraera itxietan —«ekologiari dago-kionean, Nazioarteko Auzitegi baten sorrera oztopatzen...»— aldatketarik gabe jarraitzen dutela; «betiko akatsak errepikatzen», ondorioztatu zuen Galak.

Hamabi hilabeteen George Bushen jokatuak papera izan zuen hizpide **Deia**-k. Mundu osotik bereganatu zuen elkartasuna modu desegokian erabiltzea leporatu zion eta horren ondorioz AEBen eta herrialde arabiarren arteko harremanak «geroz eta gaiztoagoak» direla nabarmendu.

Dorre bikien itzala «luzea» izan dela zioen **El País**-ek eta irailaren 11 «mundu hobe bat eratzeke alferrik galdutako aukera». Gertaera haien ondorioen artean «askatasunak kolpatu» direla gogoratu zuen **El País**-ek eta «demokrazia askok, tartean AEBetakoak, askatasun zibilak mugatu eta nazioarteko arauak ez dituztela bete», gaineratu.

Gara egunkarian erantzunik gabeko hainbat galdera egin zituen Gabirel Ezkurdiak eta erantzunik ezak herritarrengan irailaren 11ko gertaeren inguruko zalantzak areagotu dituela nabarmendu zuen. Galdera horien artean, bat nabarmendu nahi izan zuen: «Zeini egin diote mesede irailaren 11ko gertaerek?».

Egunkaria
euskaldunon 3.653. zenbakia

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde**Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:** Joan Mari Torrealdai**Kontseilari Ordezkarria:** Iñaki Uribe**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi**Gerentea:** Mikel Sorozabal**Publizitatea:** Idoia Sanz**Egoitza Nagusia:** Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707**Webgunea:** www.egunkaria.com**Posta elektronikoa:** egunkaria@egunkaria.com**Publizitatea:** publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72664 E. Lege Gordailua. SS 800/90 ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA

ORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965

Nafarroa: Irabie Monasterioa, 45-13. esk. (Irritzidorra) 31011 Iruñea
Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686

Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114

Lapurdia, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35,
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

martintxo**hizpideak****Birgasifikazio planta
handitzeko prest**

Hasierako Bizkaiko Badia Gas proiektua motz geratu da. Birgasifikazio plantaren edukiera 9 mila milioi metro kubikora zabaltzea aztertzen ari dira BP, Iberdrola, Repsol-YPF eta Energiaren Euskal Erakundea. Azkenaldian birgasifikazio plantaren eskaria nabarmen ugaritu da eta horri erantzuteko planta zabaltzea nahi da. Dena den, proiektuaren sozietate kudeatzaileko kideen artean ezberdintasunak ageri dira: batzuk alde eta besteak kontra. Eusko Jaurlaritza, Josu Jon Imaz eldunaren bitartez, planta hedatzeko prest agertu zen atzo.



Aspe, Asegarce eta Eskutik-eko ordezkariak, atzo, Eibarren.

**Pilotarien eta enpresen elkar
ulermenerako lehen urratsa**

Eskutik sindikatuaren greba mehatxuak Asegarce eta Aspe enpresak asaldatu zituenetik —gehiago hitz egin da ordutik grebaz pilotarien euren eskaera eta eskubideez baino— atzo bildu ziren aurreneko aldiz hiru aldeak: pilotarien ordezkariak eta bi enpresa nagusietakoak. Garbi gelditu da batzuek eskatzen dutenaren eta besteak eskaintzeko prest daudenaren artean zulo handi samarra dagoela oraindik, baina lehen urratsa egin dute Hitzarmen Kolektiboa onartua izateko bidean. Hemendik aurrera, gainera, astero biltzekotan gelditu dira hiru aldeak. Ongi hasi dira. Ikusteko dago hasi bezain ondo amaituko duten. Hastea ere ez zuten espero batzuek.

PANen efektu kolpea

Jasser Arafat PAN Palestinako Aginte Nazionaleko presidenteak ekainean izendatu zuen gobernu eraberrituak —bost ministro berri bakarrik zeuden— Palestinako Legebiltzarraren onspena jasoko ez zuela ikusita, dimisioa ematea erabaki zuten gobernuakideek atzo. Hala, Arafatek beste 14 egun izango ditu exekutibo berria osatu eta berriz ere Parlamentuan aurkezteko. Kargu-uzteen aurretik hauteskunderen data zehatza iragartzeak —urtarrilaren 20a— eta, beraz, Gobernuak jardunean epe mugatuz egongo dela baieztatzeak ez zuen eragotzi diputatuen arbuioa; «ustelduta» egotea edota «gaitasun gabekoak» izatea leporatzen diete ministroei.

Palestinako Legebiltzarreko kideak, atzo.

**Ondarearen Egunak,
dugunaren balioaz jabetzeko**

Bi egunez eta gau batez, irailaren 21 eta 22an, Baionako hainbat gune urrurik bisitatzeko eta hainbat altxor sakon ezagutzeko aukera eskainiko dute Ondarearen Eguneak, eta urriaren 10etik 12ra bitartean ondarearen berpizteaz solasaldiak jasoko ditu Lapurdiko hiriburuak. Donibane Garazik ere Ondarearen Gaua ospatuko du, eta Iparraldeko beste herri batzuetan ere izango du oihartzunik ekimenak. Maiz begien aurrean oharkabean pasatzen uzten ditugun altxorren zinezko balioaz jabetzeko aukera egoia eskaintzen dute Ondarearen Eguneak, eta aukera estigmatikoa dira hala herri edo hiriko bizilagunentzat nola kanpotik hura ezagutzera joandakoentzat.